

EKONOMIA-PROGRAMAZIOA LABURRA					
<b>Irakaslea:</b>	Mikel Olló Uhalte			<b>Ikasturtea:</b>	2018-19
<b>Maila:</b>	1. Batx.	<b>Saioak asteko:</b>	4	<b>Ikasgai mota:</b>	Hautazkoa
<b>HELBURU OROKORRAK, EDUKIAK</b>					
25/2015Foru Dekretua, apirilaren 22koa (70 zk.ko NAO, ekainaren 6koa).					
<b>EDUKIEN DENBORALIZAZIOA:</b>					
<b>1. Ebaluazioa</b>		<b>2. Ebaluazioa</b>		<b>3. ebaluazioa</b>	
<b>1.-</b> Ekonomiaren funtsa <b>2.-</b> Antolakuntza eta hazkundera <b>3.-</b> Ekoizpena eta banaketa <b>4.-</b> Merkatuaren funtzionamendua <b>5.-</b> Merkatu motak		<b>6.-</b> Merkatuaren hutsagiteak <b>7.-</b> Ekonomia adierazleak: ekoizpena <b>8.-</b> Ekonomia adierazleak: enplegua eta prezioak <b>10.-</b> Politika makroekonomikoak. Zerga-politika <b>11.-</b> Dirua, bankuak eta moneta-politika		<b>12.-</b> Espainiako finantza sistema. Bursak <b>13.-</b> Nazioarteko merkataritza <b>14.-</b> Integrazio ekonomikoa: Europar Batasuna <b>15.-</b> Globalizazioa eta munduko ekonomia desorekak	
<b>METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK:</b>					
<b>•Baliabideak:</b> - <b>Testuliburua:</b> EKONOMIA Batxilergo 1 Anxo Penalonga Sweers. McGrawHill ISBN: 9788448196004 - Irakasleak prestatutako material osagarria <b>•Metodologia:</b> gaitegiaren irakurketa eta edukiaren lanketa ariketa eta lan ezberdinen bidez					

EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA
25/2015Foru Dekretua, apirilaren 22koa (70 zk.ko NAO, ekainaren 6koa).
KALIFIKAZIOA ETA BERRESKURAPENA:
<b>KALIFIKAZIO PROZEDURA</b> Kalifikazio tresnak honakoak izanen dira: irakasleak egindako ikaslearen klaseko etengabeko behaketa, etxerako lan zein frogak txikiak eta azterketak. Ebaluazio bakoitzak ebaluazio-azterketa bat izango du gutxienez. Gainera kontrol edo/eta lan desberdinak eta materiaren gaitzuzte errazten duten jarduerak egingo dira. Materiaren ezaugarriak direla eta, ohikoak izango dira kontzeptuei eta definizioei buruzko galdera motzak, galdera luzeak, test motako galderak eta edukietan oinarritutako prozesu matematikoa, zein ezagutza teoriko praktikoak eskatzen dituzten ariketak.
Jarrera ebaluatuko da, hots, euskararen erabilera, errespetua (ikasleekiko zein irakaslearekiko), parte hartzea, klasera garaiz etortzea, etxerako lanak egitea, jarrera aktiboa izatea ikasgelan, eztabaidetan parte hartzea eta galdera egokiak proposatzea. Hauetako edozein aldagai ez beteta eta irakasleak larritzat kontsideratuz gero, negatibo batekin zigortuko du ikaslea. Aldi berean mugikorren erabilera zigortua izanen da. Ebaluaketa batean 4 negatibo lortzen badira, zuzenean suspenditu egingo du ikasleak ebaluaketa.
Aldi berean positiboak ere lor daitezke. Positibo bakoitzak ebaluaketako notan +0,25eko eragina izango du ebaluaketako notan. Hauek lortzeko, irakasleak alde aurretik abisatuko du, eta orokorrean gaiaren sakoneko ezagutza eskatzen duen galdera erantzutean lortuko da, edota estrako lanak egitean. Edonola ere, ikaslearen bi negatibok positibo bat efekturik gabe utziko du.

Setik gorako ebaluaketako notak 0,7 tik gora biribilduko dira (adibidez 6,7=7 baina 6,6=6) ikasleak gehienez ere bi negatibo baldin baditu. Hamartarren zehaztapena ikasturte osoan zehar aplikatuko da.

Ikasleak ebaluaketa bakoitzean nota igotzeko aukera izango du, betiere 5 bat baino gehiago lortu badu. Edozein kasutan erdietsitako nota mantenduko zaio eta hobetuz gero, aipatutako biribiltze prozedura aplikatuko da ebaluaketa guztia biltzen duen azterketako nota soilik kontutan hartuta.

### **KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK**

#### **EBALUAZIOKO AZKEN NOTA:**

Ebaluazioko nota aurretik egindako frogak eta lanekin batera banaketa proportzional baten bidez lortuko da.

Ebaluazio bukaerako kalifikazioa modu honetan banatuko da:

- Azterketa/tek %70eko pisua izango du/dute ebaluaketan (2 izatekotan lehenengoak guztizkoaren %30eko pisua izango du eta 5 bat edo gehiago erdietsita materia kentzeko balioa du. Bigarrenak edo bukaerakoak %40koa). Bukaerako azterketan gutxienez 3,5 bat lortu beharko du ikasleak ikasgaia gainditzeko
- Ebaluaketan zehar egindako frogak edo/eta lanek(bi edo hiru izango dira) bukaerako notaren %30 a bilduko dute.
- Ikasleak ebaluazioa gaindituko du aurreko nota guztien baturak (portzentaiak errespetatuz)5 edo gehiagoko emaitza lortuta, betiere kalifikazio irizpideetan aipatutako baldintzak kontutan hartuta.
- Kopiatzen edo kopiatzen saiatzen ikusten den ikasleak ebaluazioan 0 bat edukiko du zuzenean.

#### **AZTERKETEN ZUZENKETA IRIZPIDEAK:**

- Azterketen zati teorikoa test, garatzeko galdera motz eta definizioen bidez galdetu ahalko da.
- Test galderetan, erantzun okerrek notaren balioa jaitsiko dute. Erantzun zuzenaren heren bat hain zehazki. Erantzun gabeko galderek 0-ko balioa izango dute
- Definizioetan, galdera motzetan eta galdera luzeetan kontzeptuaren zuzentasunaz gain, adierazpen maila eta ortografia ere kontutan hartuko dira.
- Zati praktikoa, klasean landutako ariketen inguruan izanen da, eta bertan, emaitzaz gain, prozedura ere kontutan hartuko da.

#### **ETXERAKO LAN ETA FROGETAN KONTUTAN HARTUTAKO IRIZPIDEAK:**

- Frogetan galdera praktiko zein galdera teorikoak galdetu daitezke. Hauetan erantzunen zuzentasunaz gain, prozedura eta erabilitako adierazpen maila hartuko da kontutan.
- Etxera bidalitako lanetan zuzentasuna eskatuko da, horretarako ikasleak iturriak modu egokian aipatu beharko ditu. Horretaz gain, gaiarekiko sakontasun zein orijinaltasuna hartuko da kontutan. Ikasleak lana kopiatu duela frogatuz gero atal honetan (lan eta frogak. %30ko pisua) 0 bat izanen du.
- Irakasleak ahoz aurkeztea eskatu lezake.

#### **IKASTURTEKO AZKEN NOTA:**

- Kurtsoaren bukaeran ikasleak helburu minimoak lortzen baldin baditu aprobataua izanen du ikasgaia. Baldintza hau betetzeko bukaerako hiru ebaluazioen batazbesteko bat egingo da azken nota kalkulatzeko eta horietako bakoitzean gutxienez hamarretik bost bat lortu beharko du ikasleak.
- Aurreko baldintzak beteko ez balira bukaerako azterketa orokorra gainditu beharko du ikasleak.

### **BERRESKURAPENAK**

Berreskurapenetan lortutako emaitzak ondorengo moduan izango dira ebaluatua:

Berreskurapenaren emaitza	Azken emaitza
9-10	8
8-9	7
7-8	6
5-7	5
0-5	Berreskurapenaren emaitza 4/5 artean, 4

Azken hauek soilik ikasleak ebaluaketa bat edo bi azterketa, azterketa batean gainditzeko dituzenean aplikatuko da. Gainontzeko kasuetan 5 bat baino gehiago erdietsi ez gero 5a lortuko du ikasleak.

#### **LEHEN, BIGARREN ETA HIRUGARREN EBALUAZIOAREN BERRESKURAPENA:**

- Ebaluazioa bukatu ostean egingo da, ikasleek eta irakasleek adostutako datan.
- Berreskurapen azterketa ebaluazioan 5era iritsi ez diren ikasleek egin beharko dute.

#### **IKASTURTE AMAIERAKO BERRESKURAPENA (maiatza):**

- Azterketa hau egin beharko duten ikasleak ondorengoak izanen dira:
- Ebaluazio bat gutxienez suspenditua duen pertsonak egin beharko du.

#### **EKAINEKO EZ-OHIKO EBALUAZIOA:**

- Urtean zehar landutako eduki guztiak hartuko dira kontuan
- Azterketa hau egin beharko dute maiatzeko berreskurapen azterketan 5a lortu ez duten ikasleek.

- Azterketa hau gainditu ahal izateko 5a lortu behar dute azterketan.